



ESKUBIDE SOZIALEN MURRIZKETARI AURRE EGITEKO SOS ARRAZAKERIAREN PROPOSAMENAK

Mariano Rajoyren gobernuak berriki hartu dituen neurriek lana, osasuna eta hezkuntzari dagokionez ongizate sistemaren ahultze itzela dakarte eta berez zaurgarriak diren kolektiboak kaltetzen ditu bereziki: adinekoak, etorkinak, gazteak eta emakumeak.

Etorkinentzako eskubide berberen alde lan egiten dugunok arduraturik gaude neurri hauek immigranteengan izango dituzten ondorioengatik, ahaztu gabe herritargo osoari eragiten dion krisialdi ekonomikoarekin euren bizi maila galdu duten pertsonak asko direla.

Egoera irregularrean dauden atzerritarrak murrizketen jomuga nagusi egitea maltzurra da eta egoera eta giro sozial guztiz ezkorra eragiten ditu; bazterketa gogorrenera kondenatzen ditu etorkinak eta lanaren bidez gizarteratzeko edozein bide ukatzen die.

Hainbat testuk jasotzen dituen giza eskubideak betetzeko nazioarteko hitzarmenak urratzeaz gain, herritargoaren artean zabaltzen duen mezua da pertsona hauek ez dutela 'merzi' gizarte babesik. Gaitzespena hauspotzen dute eta xenofobia sustatzen dute.

Dokumentu honekin salaketatik haratago joanez Euskadi eta Nafarroako gobernu autonomikoei zuzenduriko proposamenak luzatzen ditugu, eskubide sozialen eskuragarritasunaz aritzerakoan, berdintasun eta unibertsaltasunaren oinarritzko printzipioen errespetuan oinarrituriko gizarte baten aldeko apustua egin dezaten.

Gai honi dagokionez, egiten ditugun proposamenak kolektibo ahulenei daude lotuak, egoera irregularrean dauden atzerritarrekin alegia. Esan gabe doa egoera honetan dauden pertsonak ez dutela aukera hori egin, guztiz kontrakoa baizik. Baina Atzerritarren Araudiak erregularitatea lortzea oztopatzen die eta jadanik baimena zuten baina lana galtzarekin batera baimena ere galdu dituzten pertsonak egoera irregularrera kondenatzen ditu. Gogorarazi nahi dugu pertsona hauek nahiz eta egoera irregularrean egon, zergak ordaintzen dituztela zeharkako zergen bidez (BEZ eta tabakoaren gaineko zerga bereziak, hidrokarburoak, matrikulatzeak etab.) eta gizartearen parte direla ukazina da.



Ez gaitzatela engainatu, 'lehendabizi bertakoak' aitzakiarekin mozorroturiko eta erabat antisozialak diren murrizketa hauek gizarte osoaren kalterako dira, desberdintasunaren mantentzea bultzatzen dute eta krisialdi estrukturalak bortizki pairatzen dutenen arteko borroka sustatzen dute.

Lehentasun nazionalaren ideia, estatuari egiten zaion exijentzia bertakoak atzerritarren aurretik jarri ditzan, erakunde nazional populista, eskuin muturreko eta egun Europan gailentzen ari diren eskuin erradikaleko alderdi guztien oinarritzko ideien zutabea da.

Nafarroa eta Euskadiko gizarte zerbitzuetako lege autonomikoetan berriki eginiko aldaketak.

Nafarroan 1/2012ko Foru Legeak Gizarteratzeko Errenta jaso ahal izateko baldintzen artean jasotzen du lurralde espainiarrean erresidentzia legala izatea, Nafarroan egoera irregularrean erroldaturik dauden atzerritar guztiak automatikoki kanpoan uzten dituelarik.

Lege berriak bazterketa egoerako kasuak hartzen ditu kontutan eta langabezia daudenak ez ditu hala kontsideratzen.

EAEan Eusko Jaurlaritzak Oinarrizko Errenta eta Gizarteratzeko Legea aldatzen duen Azaroaren 24ko 4/2011 Legea onartu zuen. Aldaketa aipagarrienetakoa izan da Oinarrizko Errenta jaso ahal izateko hiru urteko erroldatzea exijitzen dela orain. Nahiz eta Legeak immigrante irregularrak kontutan hartuko lituzkeen 'erresidentzia efektiboa' kontzeptua erabiltzen jarraitzen duen, Oinarrizko Errenta lan egiteko ahalmenarekin lotzea eta erroldaren urteen epea luzatzeak izugarri oztopatzen du atzerritarrek laguntza hauek eskuratu ahal izatea.

Aldiz Atzerritarren Legeak aurreikusten du egoera irregularrean dauden pertsonak oinarrizko laguntzak eskuratu ahal izatea. Oinarrizko Errenta eta Gizarteratzeko Errenta horixe baino ez dira.

Euskadi eta Nafarroako administrazioei eskatzen diegu jarrera eraginkorra izan dezaten atzerritarrek eta bereziki egoera irregularrean daudenek Oinarrizko Errenta zein Gizarteratzeko Errenta eskuratu ahal izateko eskubideen defentsan. Horretarako honako hau proposatzen dugu:



Proposamenak:

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari, Gizarteratzeko Errentaren estaldura Nafarroako herritargo guziari zabal diezaiola, egoera irregularrean dauden atzerritarrak barne, Atzerritarren Legean betebeharrak bezala jasotzen baita.

2. Euskal Autonomi Erkidegoko administrazioari, ez dezala Oinarrizko Errenta lotu eskusiboki lan egiteko ahalmenarekin eta EAEn laguntza hau jaso ahal izateko exijitzen den errolda epea murriztu dezala, neurri horrek bereziki eragiten baitie immigrantei.

Osasunerako sarbidea.

Osasun-laguntzarako eskubidea Atzerritarren Legearen 12. Artikuluan dago arautua eta dio Espainian dauden eta espainiarren baldintza berdinetan erroldaturik dauden atzerritar guztiek dutela eskubidea.

16/2003 Osasun-kohesioaren Legearen aldaketarekin, egoera irregularrean dauden atzerritarrek, bakarrik gaixotasun larri edo istripu kasuetan eta haurdunaldi, erditze eta erditze ondorengo kasuetan larrialdietako osasun-laguntza jaso ahalko dute; egoera irregularrean dauden adingabe atzerritarrek espainiarren baldintza berdina izango dituzte.

Eusko Jaurlaritzak etorkin irregularrentzat osasun-laguntza mantenduko duela iragarri du. Neurri garrantzitsu eta positiboa izanik beste erkidegoentzako adibide izan beharko luke. Ez da erraza neurri honek zenbat pertsonengan izango duen eragina kalkulatzeko; estatu espainiarrean 150.000 eta 450.000 pertsona artean egongo litzake kopurua, Araban 2.800 inguru, 8.300 Gipuzkoan, 11.600 Bizkaian eta 4.500 inguru Nafarroan. Argi aurreikusi daitezkeen ondorioak dira: tratamenduen etena, behar bezala tratatuko ez diren eritasun kronikoak, larrialdietako kolapsoa eta ondorioz zerbitzuaren hondatzearen errua etorkinena dela esaten duen aurreiritziak eragiten duen atzerritarren aurkako jarrera.

Nafarroako Azaroaren 23ko 10/1990 Osasunaren Foru Legeak 3. artikuluan dio Foru Komunitateko lurraldean Osasun-laguntza Publikoa zabalduko dela Nafarroako edozein udalerritan bizi diren herritarrei, bere egoera legala edo administratiboa zein den kontutan hartu gabe. Ekainaren 26ko 8/1997 Euskadiko Osasun Antolamendurako Legeak nahiz eta aitortu osasunaren babesa hemen bizi garen guztiontzako legedia orokorrak aurreikusten duen modu eta baldintzetan, baita ere esaten du Eusko Jaurlaritzak Euskadiko lurraldean estatuak ezartzen duen laguntza katalogoa zabaldu ahal izango duela.



Aurreko gogoetak eta Gernikako Estatutua eta Hobekuntza Legeak bi erkidegoei ematen dien kompetentzia maila kontutan harturik, Nafarroako eta Euskadiko administrazioei etorkinen eta batez ere egoera irregularrean daudenen osasunerako sarbiderako eskubidea, bi erkidego hauetako beste herritarren baldintza berdinekin modu eraginkorrean defenda dezatela eskatzen diegu. Horretarako ondoko proposamenak luzatzen dizkiegu:

Osasun-laguntzarako proposamenak:

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari, 16/2012 errege-dekretua aurkaratu dezala kompetentzien inbasio nabaria delako eta 10/1990 Nafarroako Osasun Foru Legeak ezarririkoarekin kontrajartzen delako. Kompetentzien arteko gatazka argitu arte, egoera irregularrean dauden atzerritarrei osasun-laguntza mantentzeko beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzala.

2. EAEko administrazioari, ziurtatu dezala atzerritarrentzako osasun zerbitzua Otsailaren 26ko 26/1988 Dekretuaren bidez, non aitortzen den Euskadiko Osasun Zerbitzuak -Osakidetza- emaniko osasun-laguntza jasotzeko eskubidea, baliabide ekonomiko nahikoa ez dutenentzako eta Gizarte Segurantzaren babesa ez dutenentzako.

2012ko Maiatzaren 4a

